



IF

URRIAK 29 / AZAROAK 26

TOLOSA

aranburujauregia

- 2021 -

Ramas asociadas

IF (Uztaritze, 1977) convierte la creación artística en un catalizador para el intercambio de reflexiones e ideas, por eso es suyo el arte de la libertad. Para poder cumplir este propósito, llena las obras de contenido y sentido común. Aunque necesariamente parte de sus propias vivencias, el artista aborda temas que son universales: el amor, la sexualidad, el vacío, las normas y la legislación, el poder, el urbanismo y la organización social, el lenguaje, la actualidad política cuando las opresiones y la libertad son el hilo de todo esto.

En la lectura del mundo que aparece en la serie semifigurativa biestable encabezada por Expresiones del Inconsciente de 2010 ya está todo: un trazo ilustrador que trae formas excéntricas como un color vivo hasta el punto de ser casi tribal. El tema es político, poético, amoroso, cotidiano.

La serie Arrak eta Garrak (2011) es una salvación solitaria, un reconocimiento de deseo al amante retenido como prisionero: formas retraídas, animosas, hinchadas, de fuego, prometeicas se han encarnado literalmente; la carne se exalta a través de la crítica del deseo que sueña con los pigmentos.

Con la serie Isilduak (I@s bajo silencio) (2012-2019) viene el derrame expansivo del acrílico, pero sobre madera. La técnica y el tema están en disputa: pinturas en libertad expresando falta de libertad, en plena ironía. El amor ha pasado el testigo a la denuncia.

Esta rama anterior ha podado nuevos ojos de cuerno. La serie Hirisilduak (ciudades bajo silencio) grabó y dio forma al reinado de la castración Isilduak, como si la vida se enredara en rotondas y terminara en calles sin salida. Amalurra se ha convertido en un paisaje artificial y aplanado, mientras que los puntos blancos denuncian el origen de la enfermedad. Por otro lado, las obras del grupo Zaindariaak son representantes mudos de las culturas y lenguas en lista de espera para el sacrificio en el altar de la sociedad consumista.

A todos ellos se unen casi naturalmente los dibujos realizados para el semanal Hitzza relacionados con la actualidad.

En esta exposición puedes ver más de ochenta piezas del artista labortano de los últimos doce años. ¿Para la contemplación o la reflexión?

Adar lotuak

iF-ek (Uztaritze, 1977) gogoeta eta ideia trukerako katalizatzaile bihurtzen du Arte-sorkuntza, hargatik da berea askatasunaren artea. Asmo hori bete ahal izateko, obrak edukiz eta zentzuz betetzen ditu. Ezinbestez bere bizipenetatik abiatzen bada ere, unibertsalak diren gaiak lantzen ditu artistak: maitasuna, sexualitatea, hutsunea, normak eta legedia, boterea, hirigintza eta jendarte antolaketa, hizkuntza, aktualitate politikoa... horren guztiaren hari zapalkuntzak eta askatasuna direlarik.

2010eko Inkontzientearen Adierazpenak goiburudun serie erdi-figuratibo biegonkorrean agertzen den mundu irakurketan dena dago jadanik: kasik tribala izaterainoko kolore bizia bezala forma xebreak dakartzkien marra ilustratzailea. Politikoa, poetikoa, maitasunezkoa, egunerokoa... edozertarikoa da gaia.

Arrak eta Garrak seriea (2011) salbazio bakartia da, preso atxikia den maitaleari egindako desio aitormena: forma uzkurak, adoretzuak, puztuak, suzkoak, prometeikoak... gorpuztu dira, hitzez hitz; haragia goratzen da pigmentuekin amesten duen desioaren kritika bitarteko.

Isilduak seriearekin (2012-2019) akrilikoaren hedapen-isuria dator, baina zur gainean. Teknika eta gaia liskarrean dabilta: margoak aske askatasun eza adierazten, ironia bete-betean. Maitasunak salaketari pasa dio lekukoa.

Arestiko adar horrek adar-begi berriak kimatu ditu. Hirisilduak serieak isilduen zikiratze-erreinua grabatu eta moldatu du, bizia biribilgunetan katramilatua balego bezala kale itsuetan amaitzeko. Amalurra paisaia berdindu artifiziala bilakatu da, ttitta zuriek eritasunaren iturria salatzen dutelarik. Bestetik, Zaindariaak multzoko obrak jendarte kontsumistaren aldarean sakrifizioarako itxaron-zerrendan dauden kulturen eta hizkuntzen ordezkari mututuak dira.

Horiei denei kasik naturalki batzen zaizkie aktualitateari loturiko Hitzarako marrazkiritziak.

Erakusketa honetan, artista lapurtarraren azken hamabi urteotako laurogei pieza baino gehiago dituzu ikusgai. Ikusgai ala gogoetagai?

if-matxikote.eus
if@if-matxikote.eus
instagram: @if_artista
fb: @iFMatxi







aranburujauregia



TOLOSA